

Donostian, 2005.eko apirilaren 22an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Jean-Louis Davant,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
eta Piarres Xarriton euskaltzainak,
Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose
Zearreta kudeatzailea eta Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordearen idazkaria zegozkien gaietan.

tzainei proposamenen eta informazioaren kopiak bidaltzea. Euskaltzainburuak proposamenaren alde egin du, hala bidaltzea nahi duten euskaltzainei eskari hori idatziz egiteko esanez. Ontzat eman da.

2.1.2. Onomastika: Bizkaiko Herri izendegia (I) Durangaldea onartzea. J.L.Lizundiak, A. Arejitak egindako oharrak direla eta, beroni eman dio hitza, *Garai* herriaren kasuan forma jatorra *Garaia* dela azalduz. Lizundiak arrazoia eman dio, baina zail dakusa udalak orain izena aldatzea. Oin-oharrean *Garaia* ere zilegi dela eranstea onartu da.

Iurreta-ren kasuan Arejitak *h* ez sartzea proposatzen du, baina ohar batekin *i-u* hiatoa azalduz. Lizundiak kasu hau Igorre-rekin batera erabaki beharko litzatekeela uste du, ondoko bileran onartzeko. Gainerako izen guztiak ontzat eman dira.

2.1.3. Onomastika: Bizkaiko Herri izendegia (II) Arratia aurkeztea. A. Iñigok, Onomastika batzordeak egindako lana aurkeztu ondoren, M. Gorrotxategik zerrenda egiteko erabiliriko dokumentazioaren berri eman du, dokumentu horietariko batzuk eranskinean jarriak izanik. Oharrak maiatzaren 20rako bidali beharko direla gogorarazi da.

2.2.1. Hiztegi Batua: C eta D zerrendetan markaturiko hitzak banatzea. Euskaltzainek markaturiko hitz-zerrendak banatu dira. Horiei buruzko oharrak apirilaren 29rako bidali behar direla gogoratu da.

2.2.2. Hiztegi Batua: *berrizale* - *byte* zerrendari egin zaizkion oharrak azterten eta eztabaidatzen jarraitzea P. Salabururen zuzendaritzapean, berba horiek banan-banan aztertu eta *berriz* ere-tik *besterendu*-raino heldu da.

Ezin etorriak eta ahalak: J.A. Arana Martijak, ahala X. Kintanari; P. Goenagak, ahala J. Haritschelharri; H. Knörrek, ahala A. Urrutiari; P. Ondarrak, ahala A. Iñigori; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Gipuzkoako Foru Diputazioaren jauregiko batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: aurreko bilkuraren akta ontzat eman da.

2. Hizkuntza gaiak:

2.1.1. Onomastika: «-erri(a) osagaia gaurko toponimian» onartzea. Oharririk ez da heldu. Miren Azkaratek eskatu du bilkuretara ezin etorri izan diren euskal-

3. Arautegiaren aldaketa-proposamena aurkeztea.

A. Urrutiak Euskaltzaindiaren arautegia aldatzeko proposamena aurkeztu eta horrekin lortu nahi diren helburuak azpimarratu ditu. Ponentea J. L. Lizundia denez gero, beronek testua irakurri du, aurrekoarekin daukan ezberdintasunak azpimarratuz, eta oharrak maiatzaren 20rako bidali behar direla gogorarazi du. J. Haritschelharrek eta P. Xarritonek iruzkin batzuk egin dituzte, baina eztabaidatzeko parada datorren hilean egingo diren XIV. Barne Jardunaldietan izanen denez gero, oharrak idatziz egiteko eskatu zaie.

4. Azken ordukoak.

XIV. Barne jardunaldien programa.

Euskaltzainburuak maiatzaren 26an, 27an eta 28an Arabako bilkuretan egitekoak diren Euskaltzaindiaren hileroko batzarraren, XIV. Barne Jardunaldien eta Joan Perez Lazarragakoaren omenaldiaren egitekoen programa irakurri eta azaldu du.

Iberiar Hizkuntzen etxea: H. Knörr euskaltzainaren txostena banatu eta komentatu da, Madrilen Instituto Cervantesez apirilaren 5ean aurkeztu zuen “Casa de las Lenguas Ibéricas” deritzon proiektuaz. Asmo hau Cervantes Institutuak eta Alcalako Unibertsitateak elkarrekin eraman nahi dute, Penintsulako beste hizkuntzen akademiekin lankidetzan, bertako hizkuntzen garapen eta barne eta kanpo zabalkunderako.

Enpresa Kudeaketaren Ezagutzarako Clusterra.

Izen horretako erakundearen lehendakariak bidalita, apirilaren 26an Bilboko Euskalduna jauregian egiteko den ekitaldirako inbitazioa jaso da, Euskara erakundeen kudeaketan txertatzeko moduz izango denera.

Pierre Duny-Petre-ren heriotzaren berri. P. Duny-Petre Garaztar euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri eman da. Horren hilberria J. Haritschelharrek egingo du.

Manuel Lekuona Saria Haritschelharri. Eusko Ikaskuntzak aurtengo Manuel Lekuona saria J. Haritschelhar euskaltzainburu ohinari eman diola jakinarazi da. Horren kariaz zorionak eman zaizkio. Saria aurtengo maiatzaren 21ean emanen zaio Baigorri. Euskaltzain guztiak hara joatera gomiturik daude.

Juan San Martín Eibarko seme kutuna. Juan San Martín euskaltzaina bere jaioterriko, Eibarko seme kutuna izendatu duela bertako udalak jakinarazi da. Izendapen omenaldi hori eskaintzeko data ekainaren 3an izango da. Herriko alkateak, ekitaldi horretarako, euskaltzainburuaren partaidetasuna eskatu du.

Liburu berrien banaketa: bukaeran, ondoko liburu hauek banatu dira euskaltzainen artean:

Nafarroa Behereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia. Patxi Salaberri euskaltzain urgazleak idatzia eta Nafarroako Gobernuak argitaratu eta opetsia.

Ortotopografia. Estilo liburuaren lehen atala. Eusko Jaurilaritzak argitaratu eta oparizat eskainia.

Bilkura 13,50ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

2005-IV-22

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2005eko apirilaren 22an, bildu da Euskaltzaindia, arratsaldeko 5etatik 6etara, hilberri-txosten bi hauek irakurtzeko: Jose Mari Larrarte euskaltzain ohorezkoaren txostena eta Jose Garmendia euskaltzain urgazlearena.

Bildu dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina; A. Iñigo, Jagon sailburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; P. Charritton, P. Goenaga, E. Larre, P. Salaburu eta A. Zavala euskaltzain osoak.

K. Artola eta P. Apezetxea euskaltzain ohorezkoak; M. Atxaga, J. M. Iriondo, M. P. Lasarte, P. Rekalde, P. Telleria eta J. J. Zearreta urgazleak eta Amaia Okariz Euskaltzaindiko Prentsa arduraduna.

Mahaiburuan eseri dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina eta J. A. Mujika, urgazlea.

Lehenengo eta behin, ongietorria eman die Euskaltzainburuak bertaratu direnei, batez ere hilberri-txostena irakurriko zaien Jose Mari Larrarte eta Jose Garmendiaren familiakoei eta lagunei eta, ondoren, Xabier Kintana idazkariak, goizean Euskaltzaindia zertan aritu den azaldu du, lan akademikoari buruzko xehetasunak emanez.

Jose Mari Larrarte (1926-2004)

Jose Mari Larrarte euskaltzain ohorezko bidaniarraren hilberri-txostena irakurri du J. A. Mujika euskaltzain urgazle eta Gramatika batzordekideak. Jose Mari Larrarteren ezaugarriak nabarmenena hau zela adierazi du hizlariak: langile isila baina nekagaitza eta emaitzetan oparoa izatea. Hiru alditan banatu du hizlariak haren bizitza profesionala: lehenbizikoa, gaztetxoan irakasle, pasiotarren ikastetxeetan batez ere (1951-1976); bigarrena, helduen irakasle Iruñean (1976-1981); eta hirugarrena, itzulzaile Gasteizen (1981-1991).

Lehen etapan, pasiotarren etxean jardun zuenean, euskararen irakaskuntzari lotu zitzaion. Irakaskuntzaren bitartez ikusten dira argi haren lanak, haren bizitza osoan izan zituen ezaugarri bi: praktikotasuna eta apaltasuna. Pasiotarren Gabiriako eta Eubako ikastetxeetan irakasle ibili ondoren, Irunen eta Urretxun izan zen, harik eta Iruñera bidali zuten arte.

Orduantxe hasten da, Larrarteren bizitzan, hizlariak bereizi duen bigarren etapa. Udako ikastaroak antolatzen eta eskolak ematera Iruñera joateko eskatu zioten. Horrela, 1977tik aurrera ardurak berriak izan zituen. Iruñeko Irakasle Eskolako Euskararen katedraren jabe izan zen lau urtez, 1977. urtean hasita; eta Hizkuntza Eskolako irakaslea ere izan zen, hau sortu zenetik, hau da, 1977. urtetik aurrera, eta Eskola horretarako material didaktikoa ere sortu zuen, *Euskara Bizitiki* izenekoa.

Hirugarren etapa 1980an hasi zen, Gasteizen Eusko Legebiltzarreko itzultzaile gisa. Hamar urte egin zituen bertan. Gero, erretiroa hartuta, Erromara bidali zuten nagusiek, artxibistika ikastera urtebetez. Handik Deustura etorri zen, kongregazioko artxiboan lan egitera. Euskaltzaindiaren barruan, Gramatika batzordeko kidea izan zen Larrarte, baita Azkue Biblioteka eta Lexiko Ebazpen Finkapenerako batzordeetako ere. Gramatika batzordean lanean diharduen Jose Antonio Mujikak esan duenez, “ziurtasuna ematen zigun, euskararen ezagutza sakona baitzuen”.

Jose Garmendia Arruebarrena (1925-2005)

Ondoren, Jose Luis Lizundia diruzainak, Jose Garmendia Arruebarrena euskaltzain urgazle zaldibiarren hilberri-txostena irakurri du.

Jose Garmendiaren zenbait datu biografiko aipatu ostean, Sevillan igarotako urteak bereziki inportantetzat jo ditu Lizundiak, ikerketarako bidea zabaldu ziotelako; batez ere Indietako Artxiboak ikertu zituen modu sakonean. Ikerle bezala, Euskal Herrian ez ezik, Andaluzian ere oso ezaguna izan zen Jose Garmendia.

Garmendiari esker dakigu Cadiz eta Sevilla hiriek euskal exonimoak izan zituztela: *Karize* eta *Sibilia*. Lizundiak esan duenez, inork ikertu baditu Sibilia eta Karizeko merkataritza eta itsas harremanak, batez ere giputz-bizkaitarrenak, Garmendia goierritarra izan da. Indietara joandako ehunka euskaldunen testamentu, gutun, dokumentu, aberastasun, nahiz pobrezia, estudiatu ditu hark.

Jose Garmendiak, Juan Inazio Iztueta Zaldibiako idazle eta dantza ikerlearen bizitza eta lana ere sakon ikertu zituela gogora ekarri du Jose Luis Lizundiak.

Euskaltzalea zen Garmendia, hizlariaren esanetan ‘Gipuzkoaren historian ugari izan diren ideologia tradizionalistako gizon jakitun eta kezkatu andanaren azkenetarikoa’. Lizundiak, amaieran, eskari hau egin du: on litzatekeela Gipuzkoako Foru Aldundiak edota Zalbidiako Udalak Jose Garmendia Arruebarrena gipuzkoar ospetsuaren lan osoak argitaratzea.

Une honetan, Euskaltzainburuak amaitutzat eman du ageriko bilkura.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria